

ZAA

ZORROTZ MORROTZ

65. ZBKIA 2020ko IRAILA

ELENA LINARES ETA MARTA ARESTI

OSTALARIA ETA MERKATARIA. LAGUNTASUNA
MERKATARI ETA OSTALARIEN ELKARTEKO KIDIAK

2020: JAI HERRIKOIRIK GABEKO URTEA

Zorrotza

aek

Zalbidea 7
94 441 49 20
zorrotza@aek.eus
www.aek.eus

Bilbon euskaraz



Bilbao

www.bilbaeuskaraz.eus



¡Kasi
Mi Kasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPI LANDA-ZORROZGOTTI ILLHI

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
📧 sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAN JUAN ILLHI

Ikastalde ebخالdea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
📧 014159aa@hezkuntza.net



I.E.S.
ZORROTZA
ILLHI

San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
📠 94 439 97 41
📧 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

Premiazkoa da osasun, hezkuntza eta gizarte-babes integraleko sistemak indartzea

Zoritxarrez, pandemiaren inpaktuaren pean jarraitzen dugu; horregatik, gure elkartasuna helarazi nahi diegu gure auzoan ondorioak modu zuzenagoan jasan dituzten guztiei. Une honetan uste dugu premiazkoa eta beharrezkoa dela instituzioek oinarritzko hiru zutabe sozial indartzea: osasun-sistema, hezkuntza-sistema eta gizarte-babes integraleko sistema, inor ere babesgabetasun-egoeran ez uzteko asmoz. Era berean, gero eta kezka handiagoz ikusten ditugu erakunde horiek herritarrei transmititzen dizkieten inprobisazioa eta kontraesanak.

Halaber, esan behar dizuegu joan den uztailaren 29an bilera bat egin genuela alkatearekin Zorrotzarentzat garrantzitsuak diren gai guztiak berrikusteko: lurperatzea, kutsadura, gizarte-etxe berria, ondarea, hezkuntza-proiektuak, belaualdien arteko proiektuak, etab.

Bukatzeko, gure maitasuna modu berezian helarazi nahi diegu gure nagusiei, baita ziurgabetasun giroan ikasturte berria hasi duten haur eta gazteei ere. Espero dezagun guztion indarrarekin gauzak hobera egitea. Animo eta aurrera Zorrotza!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz

Zorrotzako kultur aldezakaria
65. zenbakia. 2020ko iraila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

 **facebook.com/ZorrotzMorrotz**

 **@zorrotzmorrotz**

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Aina García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo Ramírez de la Piscina

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Iratiz Zuloaga



Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukia erantzule bakarra




ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Regalos
Omega

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetales.com



MESÓN LUNA

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



BilbaoUda2020 programaren barruan egokitu dute aurtengo Clown Zorrotza, hilaren 18an eta 19an

Zorrotz Morrotz

Clown Zorrotza, Udalaren kultur eskaintzan maiatzero ohikoa den programa #BilbaoUda2020 egitarauaren barruan egokitu da aurtten, hilaren 18 eta 19an, covid19 pandemia dela eta. Ekitaldi guztiak Azoka plazan izango dira.

Aurtengo Clown Zorrotza hilaren 18an, ostiralean, arratsaldeko 18:30ean hasiko Maite Guevararen *“Qué buen día”* lanarekin, eta bertan, Martinak erakutsiko digu amets egiten badugu milaka aukeraz betetako mundu bat

ikusiko dugula. 19:30ean Hortzmuga Teatroren konpainiaren txanda izango da, *“Jule”* lanarekin. Antzezlan honetan eraikuntza bat eraistear dago eta bertako biztanleak handik ateratzeari uko egiten dio, hainbat amets bete gabe dituelako oraindik. Konpondu beharreko katramila edo eta amets egiteko aukera paregabea; galdutako maitasuna berreskuratze-ko eta ametsak gogoz amestu behar direla sekula ez ahazteko.

Ekitaldiek, hurrengo egunean, larunbatean, jarraituko dute. 18:30ean A Coruña-ko Sempre Arriba taldearen txanda da, eta *“C’est pas possible”* aurkeztuko dute. Pailazoaren lengoia erabiliz, eta ikusliarrekin zuzeneko harremanean, ikuskizun honetan agerian jartzen da nola bizi garen gutako asko bikoiztasunean: ikasi dugu eraginkor izaten, epeak eta itxaropenak betetzen, eta ahaztu zaigu geure buruari uzten gu geu izaten eta gozaten. Kultur programa hau itxiko du, 19:30ean, Malas Compañías Zirkotaleak, bere *“Prozak”* antzazlanarekin. Bertan, batere ohikoa ez den familia baten bitartez, egoera burugabez beteriko unibertsoan murgilduko gara, oharkabean familia horren parte bihurtu arte. Antidepresibo osasuntsu eta eraginkorra dakarkizuegu: barrea eta emozioa. Gure Prozak propioa pilula ikusgarrian.

Osasun protokoloak zorrotz beteko dira ekitaldi guztietan, osasun-segurtasuna ahalik eta gehien bermatzeko. Halaber, maskara derri-gorrezkoa izango da.

Covid-19 pandemiaren berragerpenak Zorrotzari ere eragin dio

Zorrotz Morrotz

Zoritxarrez, udan Euskal Herrian oro har izan den Covid-19 pandemiaren berragerpena Zorrotzan ere nabaritu da. Abuztuan PCR proben bidez 165 positibo metatu dira Zorrotza osasun zonaldean. Irailaren hasieran, ale hau ixterakoan, 36 positibo metatuak ziren irailaren 11n, beti ere Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko datuen arabera.

Bereziki kezagarria dira Igurco Zorrozgoiti adinekoen egoitzan antzemandako kasuak (50 kasu inguru egoiliarren eta langileen artean), adineko egoiliarren kalteberatasunagatik.

Edonola ere, arduraz jokatzeko eta erne egoiteko deia egin nahi dizuegu, birusak aktibo jarraitzen baitu.

FEVEko tren batek Ertzaintzaren auto bat harrapatu zuen trenbide-pasagunean izandako istripu batean

Zorrotz Morrotz

Ezbeharra uztailaren 30ean gertatu zen, arratsaldeko 19: 00etan. Bi ertzain eta patruila-autoan atxilotuta zihoan emakume bat arin zauritu ziren, eta osasun-zentro batera eraman behar izan zituzten. Azken urteotan auzoko bi trenbide-pasaguneetan izan diren gertakarien zerrenda luzeari gehitu beharreko azken istripua izan da hau. Zenbat ezbehar eta ezbehar gehiago gertatu behar dira geltokia behingoz lurpean izan dadin?



Badator bigarren Euskaraldia, gure hizkuntza-ohiturak eraldatzeko ariketa erraldoia

Igor Gutiérrez

Aurten, azaroaren 20tik abenduaren 4ra gauzatuko da Euskaraldia, bi urterik behin Euskal Herri osoan egingo den ariketa sozial erraldoia, gure hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabilera areagotzeko. “Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan” da aukeratutako leloa.

Zenbait berrikuntza dakar urte honetako ekimenak, 2018koarekin alderatuta. Batetik, egutegia luzatu da, 11 egunetik 15era igarota, horrela erronka handituz. Bestetik, Belarriprest eta Ahobizi rolei hirugarren figura bat gehitu zaio, Arigunea, alegia. Ariguneek, edo euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera

bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Talde hauetako kideek ahobizi eta belarriprest modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen 15 egunetan, baina ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute ariguneetan.

Auzoan, martxan da Euskaraldia antolatuzeko batzordea eta jadanik sare sozialetan (Facebook eta Instagram) gurean izango diren ekimenen berri ematen hasi dira. Pandemiak sortutako egoera dela-eta, oraindik ezin da aurreikusi zer nolako oihartzuna izango duen aurtengo saioak, horra bada euskaraz aritzeko erronka handiagotuko duen beste berezitasun bat.

Restaurante Arsenio
Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua

El 10 de Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Aroko onak, konbinatu gozoak, Futbolak, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



Kiroldegiko atletismo pista berritzeko lanak egin ditu Bilboko Udalak

Zorrotz Morrotz

Zoladura eta belar artifizialeko eremua, berrotzeko erabili ohi dena, aldatu dira, eta gainera, ekipamenduak hobetu dira, hala nola, oztupoak eta jauzietarako taulak, bai eta saneamendu-sarea ere. Udalak 390.288 euro inbertitu ditu obra horietan, eta egun hauetan bukatzea aurreikusita zegoen.

Lehiaketa-pistako zoladura sintetikoa eta berotze-ariaketak egiteko pistako belar artifiziala aldatu dira, ekipamenduak hobetu-oztopoetako ur-putzuak eta jauzietarako taulak-, zintarri berri bat jarri, eta pista berriro markatu, margotu eta seinaleztatu da. Obra horiei esker, saneamendu-sarean garbiketala-lanak egin ahal izan dira.

Atletismo-pista 2000. urtean eraiki zen, eta, ordutik, zoladurak berritu gabe zeuden. Urteen eta erabileraren poderioz, aldatu beharra zuten.

Zorrotzako Kiroldegiko atletismo-pistan hiru eremu daude, bereizita: lehiaketako pista, 400 soka-metrokoa, 8 kalekoa eta zuzengunea duena, 110 m-ko lasterketetarako (era guztietako lasterketak, jauziak -luzera, jauzi hirukoitza, altuera eta pertika- eta jaurtiketak -mailua, diskoa, xabalina eta pisua- egiteko prestatua); Bigarrenik, berotze-ariaketak egiteko pista: belar artifizialekoa, footinga egiteko eta atletismoko entrenamendua egiteko; azkenik, pista barruko eremua, belar naturalakoa, jaurtiketak egiteko, beste kirol batzuk egiteko aukera ematen duena.

“Aste Nahasia” bertan behera utzi behar izan zuten Bilboko konpartsek

Zuriñe Vila

Covid-19aren eraginez pairatzen ari garen egoera dela eta, maiatzean Aste Nagusia bertan behera uztea erabaki zen. Bilboko Konpartsek, Aste Nagusia ordezkatzeko asmoz, osasun-neurri denak zorrotz bermatuta, “Aste Nahasia” prestatzeari ekin zioten herritarrek alaitzeko, entretenitzeko eta kultura eskaintzeko helburuarekin. Hala ere, abuztuaren hasieran, eman den Covid-19 gaitzaren ber-

zabaltze handiaren aurrean, “ekimen ludiko eta kulturalaren egitarau xumea” bertan behera uztea erabaki zuten Konpartsek.

Auzoko konpartsak, Txinbotarrak-ek, urtero bezala bere gogo guztiak jarrita zituen “Aste Nahasirako” ekimen desberdinak prestatzen eta, nahiz eta hauek aurrera eramatea ezinezkoa izan den, 2021eko Aste Nagusian indar guztiak jarrita dituela adierazi dute sare sozialen bidez.

Zorrotzagana eta Zorrotzabaso



Etetalde hau auzoan eraiki dabezan azken etxebizitzak dira eta izenak esaten dabezenez, auzoko goienera dagoz kokatuek.

Kadagua korridorea egin eta gero eta lur eremu batzuk desjabetuz, etxetalde hauek eraiki ebiezan babes ofizieko etxebizitzak egiteko. Gero beste batzuk ere egin ebien eta egiteko ikusita eukiezan beste lerro bat beheko aldean ez ebiezan burutu garai txarra heldu zalako...

Egiteko garaian Txorrillo gainean eta Bustamante etxearen gainean arrizko euste hormak eraiki behar izan ebiezan lurak finkatzeko, dagozan lekuetan egonda, eman daben arazoekaz.

Gaur egun komertzio batzuk ireki dabe inguruen eta auzotik igarotzen dabezan autobusak, 85a eta 18a, bertan dekote helmuga eta urtekerak.

LEHEN



ORAIN



Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59

SAZ
OKINDEGIAK

Zorrotzako
labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfno, 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

AUTO ESKOLA
KAIKU



Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

“Kanpoan denbora asko igarota, auzoko bizitza eta jendea primerakoak direla konturatu naiz”



IRANTZU BOUZAS

Bizitokia: Porto de Santa Cruz. Oleiros (A Coruña)

Noiztik: 2014ko urritik.

Adina: 34 urte.

Lanbidea: Erizaina

Maitasunak ez du mugarik eta duela 6 urte Irantzu auzokideak Galiziarra salto eman zuen bizitza berri batean murgiltzeko. Bertan familia osatu eta erizain moduan lan egiten du eta “damutu gabe esperientzia behin eta berriz” errepikatuko lukeela kontatu digu

Testua: Ibai Barrios

Nolatan eta zergatik joan zinen Galiziarra bizitzera?

Maitasunagatik joan nintzen. Lan kontuak zirela eta, nire bikotekideak ezinezkoa zuen Bilbora etortzea. Alderantziz, nire lanbidearen ezaugarriengatik munduko edozein lekutan jarduteko aukera daukat eta aldatzeko pausoa ematea niri egokitu zitzaidan. Damutu gabe errepikatuko nuke behin eta berriz.

Bertako lan eta bizimodura ohitzea asko kostatu zitzaizun?

Zorionez, azkar topatu nuen lana eta bertako erritmora ohitzea ez zitzaidan asko

kostatu. Esan beharra dago primerako lan-kideak aurkitu nituela eta horrek egoera erraztu zuen. Ohiturei begira aitortu dezaket oraindik ez naizela guztiz ohitu hemengora, kar-kar.

Nolakoa da zure eguneroko bizitza?

Oso desberdina da hango bizimoduarekin alderatuta. Asteazkenean zehar ekintza sozial gutxi lan egin behar dudalako eta gaur egun ia bat ere ez nire semea zaintzeko lan-utzialdi egoeran bainago. Nahiz eta nire inguruan familia giroa nagusi den, asteburuetan lagunekin alftzera atera eta noizbehinka parrandaren bat egiten dut. Alde horretatik ez da asko aldatu.

“ Itsasoaren ondoan bizitzeak askotan indarra ematen dit ”

Zer da zure bizitoki berrian gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Galdera zaila, ez baitut inoiz planteatu. Dena den, esan dezaket gehien gustatzen zaidana itsasoaren ondoan bizi naizela eta horrek askotan indarra ematen dit. Bestalde, hemengo pentsakera eta ohitura batzuk ez ditut ulertzen baina ez da momentua horretaz hitz egiteko, kar-kar.

Eta noizbehinka etortzen zara bisitan Zorrotzara?

Ahal dudanean familia eta lagunak ikustera etortzen naiz. Horri lotuta konfinamendu garaia nahiko gogorra izan da.

Hemendik kanpo bizi zarenetik zeren falta sumatzen duzun gehien?

Dudarik gabe, familia eta lagunak alboan ez izatea. Horrez gain, auzoko jaiak, poteo musikatuak, osteguneko pintxo-poteak... ere faltan ditut. Egia da Zorrotzatik kanpo denbora asko igarotzean konturatzen zarela auzoko bizitza eta jendea primerakoak direla. Niri horrela gertatu zait.

Azkenik, Zorrotzara itzuli ala bertan gelditzeke asmoa daukazu?

Nire bikotekidearen lan kontuengatik imajinatzen dut denbora luzez geldituko naizela hemen, baina ez dut itxaropenik galtzen...



ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!*

**PINTXO
ASKOTARIKOAK**

Zorrotza Kastrexana
errepidea 10
48013, Zorrotza

**PICOS
burdindegia**

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86

LASTER
Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

2020: jai herrikoirik gabeko urtea



Aurreko zenbakian honako galdera hau bota genuen: ospatuko ditugu aurten Zorrotzako jaiak? Tamalez, koronabirusak udan izan duen bilakaera ikusita, erantzuna ezezkoa dela baieztatu dezakegu. Zalantza gabe, jai herrikoirik gabeko urte hau ez dugu erraz ahaztuko

Testua: Igor Gutiérrez

Konfinamendua altxatzearekin batera, askok galdera bat izan genuen buruan: ospatuko al ditugu aurten auzoko jaiak? Artean, iraila urrun ikusten zen eta koronabirusak beherezko joeran jarraitzen zuen. Bigarren olatu bat egon zitekeenik ez zen ukatzen, baina hain laster etorriko zenik ez genuen espero, akaso udazkenerako.

Bilboko Aste Nagusia bertan behera geratu ondoren, konpartsek egitarau alternatibo eta seguru bat antolatzeari ekin zioten, "Aste Nahasia" alegia. Bitartean, Udala "Bilbao Uda 2020" programazioa gauzatzen ari zen, hiriko hainbat lekutan kultur ekitaldiak eskainiz. Baina abuztuan, Covid-19 gaixotasunaren gorakadarekin batera, Udalak Bilboko Konpartsak-i "Aste Nahasia" egiteko eskatutako baimenak erretiratzea publikoki exijitu zion, jende pilaketak ekiditeko argudioarekin.

Presioa handitzearen, Udalak bere programa propioa, "Bilbao Uda 2020", egun batzuez bertan behera utzi zuen, Aste Nagusia ospatu beharko zen datetan, hain zuzen, geroago berriro martxan jarri zuen arren. Azkenean, Bilboko Konpartsak-ek bere egitarau alternatiboa baztertu zuen.

Gauzak horrela, irailera heldu gara, Covid-19ko positibo kopurua gora eta gora doala eta ikasturte berriaren hasierak olatuaren erdian harrapatu gaituela. Birusaren hedapena geldiaraztea, haur eta gazteen heziketa bermatzea, lanari eustea... Erronka potolo horien aurrean, logikoa dirudi jai herrikoiak alde batera geratu izanak. Zorrotzako Jai Batzordearen aldetik, bederen, aurten ez da auzoko jairik egongo. Jarri gaitezen, beraz, 2021era begira eta espero dezagun 2020 izatea jai herrikoirik gabeko urte bakarra, erraz ahaztuko ez duguna.

AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta
ikas dezazun nahi du.

UN/A PROFESOR/A DE AEK VALE POR DOS.

Sabe enseñar y
quiere que aprendas.



Zorrotza AEK euskaltegia

2020-2021 IKASTURTEA MATRIKULA ZABALIK!!! EMAN IZENA

Zalbidea 7 behea,
944414920 - 663080976 • zorrotza@aek.eus

DIRULAGUNTZAK/BECAS

EUSKO JAURLARITZA:

maila egiaztatuz gero.

Gobierno Vasco, acreditando un nivel

BIZKAIKO ALDUNDIA:

deskontu-bonuak.

Bonos descuento de la Diputación

BILBOKO UDALA:

Maila eta asistentzia
egiaztatu behar da.

Acreditar nivel y asistencia

EUSKARA - IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA



Aurrez aurreko eskolak
Clases presenciales



Mintzapraktika



Barnetegiak



Autoikaskuntza
Autoaprendizaje



Online



aizu! aldizkaria



Normalizazio-planak
Planes de normalización



Itzulpenak-Zuzenketak
Traducciones-Correcciones

**DOAN
GRATIS**

Gainditzen baduzu
Si apruebas

**Eman izena
Matricúlate**

- **HABEK homologatutako euskaltegiak**
Euskaltegis homologados por HABE
- **Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak**
Cursos de preparación de exámenes oficiales

www.aek.eus
673 200 100 · 946 464 000



MARTA ARESTI ETA ELENA LINARES: Merkataria eta ostalaria hurrenez-hurren.
Zorrotza Laguntasuna Merkatari eta Ostalarien Elkarteko kideak

“ Egoera honetan, saltoki guztien batasuna ezinbestekoa da. Elkartuta egotea ere funtsezkoa da kontsumo-ohiturak aldatzen saiatzeko ”

Marta Arestik Zorrozgoiti kaleko Trendy 22 arropa denda du. Elena Linares Zalbidea kaleko Madness tabernaren arduraduna da. Bi emakume hauek, bata merkataria eta bestea ostalaria, Laguntasuna Zorrotza Merkatari eta Ostalarien Elkarteko kide dira, eta Covid-19ak sortutako krisiak gehien eragin dien sektoreetako biren adibide dira. Haiekin hitz egin nahi izan dugu krisi honek nola eragin dien jakiteko eta Laguntasuna elkartearen egoera zein den jakiteko.

Egungo jardunak baldintzatzen duen gaiari heldu behar diogu, jakina: Nola eragin du Covid-19ak Zorrotzako merkataritzan eta ostalaritzan?

Marta: Ba merkataritzan denboraldi galdua izan da. Itzultzean, berreskuratu eta eguneratzen saiatzea egokitu zaigu, besterik ez.

Elena: Ostalaritzan negozio motaren arabekoa da, baina edozein modutan, bi hilabete itxita denbora asko da edozein ostalaritza-negoziotarako. Nire kasuan, buelta ona izan da, gure tabernak terraza handi bat duelako; une horretan bai agintariak eskatzen zutena, bai bezeroek eskatzen zutena. Lehenengo egunetan lan asko egin genuen. Izan ere, irekitzeko baldintzak oso zorrotzak zirenean ireki zuten lehendabiziko taberna izan ginela esango nuke, baina lehen aipatu ditudan arrazoiengatik. Hala ere, badira beste mota bateko ostalaritza-negozioak, beren baldintzengatik irekitzea merezi ez zitzaienak eta ekainera arte ireki ez zutenak... Gainera, kontuan hartu beharreko beste baldintza batzuek kalte handia egin dute, hala nola: lokalaren alokairuak, soldatapeko langileak izateak...

Langile gisa? Pertsonalki nola eragin dizue?

Elena: Niri estres handia eragin dit. Une oso onak izan dira, baina beste batzuk oso txarrak. Pandemiak bakoitzaren onena aterako zuela esaten zen, baina kasu batzuetan agian okerrenera ateratu duelakoan nago... Egia da tabernan lagun berriak sortzen ikusi dudala egoera hori dela eta, baina mahai batean lekua hartzeko egoera deserosoak ere izan dira. Eta jarrera horiek, gutxi izan baziren ere, inposatutako arau zorrotzak onartu nahi ez zituen bezeroekin ez zegokigun "polizia" papera hartzea eskatzen ziguten... Nik oso argi izan nuen ez nuela isunik jasoko taberna bi hilabetez itxita izan ondoren; gainera, udaltzainen bisita etengabeak izan ziren lehenengo egunetan, beraz arauak bete ditugu modu zorrotzez. Baina uste dut jendeak ez zuela batera argi zer egin zitekeen eta zer ez, eta kekak izan ditugu... ezarritako legea betetzeagatik! Eta horrek adierazten du erakundeek ez zutela bete beharrekoa behar bezala komunikatu.

Marta: Estres psikologiko plus handia suposatu du, lan-karga handitzeaz gain. Saltzeari eta ardura izateari, lokalaren eta arroparen



“ Urritik aurrera kaleratzekoa den bonu, txartel edo txeke kanpaina propioa prestatzen ari gara Laguntasuna elkartean. Berehala egitekora den bilera batean ondo zehaztu behar dugu ”

desinfekzioa gehitu behar zaio. Gainera, lan “polizial” hori, jendeak maskara eraman dezan, gela erabil dezan eta abar zaintzea da psikologikoki gehien nekatzen duena. Baina, oro har, pertsona guztiak ondo baino hobeto betetzen dute.

Eta honen aurrean, zer neurri hartu du Laguntasuna elkartek?

Marta: Bere garaian, saltokietan eta ostalaritza-lokaletan jarraitu beharreko jarraibideak argitaratu ziren sare sozialetan.

Eta instituzioek? Nola baloratzen duzue instituzioek emandako laguntzak?

Marta: Laguntzak egon dira, baina txilibituka; dena bat-batean egin da, baina ezin zen aurreikusi... Dena oso motel doa, baina, adibidez, positiboki baloratzen ditut langile autonomoztat aldi baterako jarduerak uzteko laguntzak: langile autonomoak laguntzaren bat dugun lehen aldia da.....

Elena: Nik pare bat laguntza eskatu diot Eusko Jaurlaritzari, eta oraingoz ez dut horien berririk izan, baina suposatzen dut eskaera mordera jaso dituztela...

“ Lehenengo egunetan jendeak ez zuen batere argi zer egin zitekeen eta zer ez, eta kexak izan ditugu ...ezarritako legea betetzeagatik! Horrek adierazten du erakundeek ez zutela bete beharrekoa behar bezala komunikatu. Udaltzainen bisitak etengabeak izan ziren eta bi hilabete itxita egon ondoren, oso argi nuen ezin genuela isun baten arriskua izan, eta arauak zintzo bete ditugu ”



Merkatari txikien aldeko mezuak ugaritu dira azken bolada honetan. Hainbat erakunde-kanpainak ere egon dira... Eragina izan duela uste duzue?

Marta: Hasieran “kreo en ti” kanpainarekin zerbait nabaritu zela uste dut. Jendeak interesa agertu du gure egoeraz, baina ez dakit erakundeen kanpainak zerikusirik handia izan duten horretan... Auzoak babestu gaituela uste dut eta Zorrotzak auzo solidarioa dela erakutsi du beste behin.

Elena: Jende asko interesatu da nire egoeraz. Auzoak erantzun du, zalantzarik gabe.

Eta zuek? Laguntasunak kanpainarik egin du tokiko merkataritza suspertzeko?

Marta: Urritik aurrera kaleratzeko bonu, txartel edo txeke kanpaina propioa prestatzen ari gara, baina oraindik ondo zehaztu gabe dago. Egoera horrek justu zuzendaritza-batzordea berritzeko prozesuan hartu gaitu, eta bilera bat egiteke dugu bi gai horiek tratatzeko.

Egoera berriari ekiteko segurtasun neurri berriak hartu behar izan dituzue...

Elena: Eskatzen den garbiketa eta desinfekzioa logikoa da, eta zorrotz egiten dugu. Baina, adibidez, errazagoa izango litzateke beste alderdi batzuetan laguntza gehiago bagenu. Ostalaritzaren kasuan, nik dakidanez beste udalerririk batzuetako kideek kontaktzen didatena araberak, Bilboko Udala izan da Bizkaia

osoan ostalaritzako terrazak handitzeko oztopo gehien jarri duena. Gainerako udalerrietan malguagoak izan dira terrazak handitzeko, aurrean salbuespenezko egoera batean gaude la jakinda.

Abuztuan izan diren agerraldietan, ostalaritza errendizat jo dute hainbat esparrutatik. Zer iruditzen du?

Elena: Argi dago birusa ez dagoela ostalaritzan, kalean baizik. Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu ohiak berak esan zuen jendea zegoela ZIUetan, beste batzuk tabernetan zeudelako... Horrelako zerbait esatea onartezina da! Ostalaritzako langileok arauak eta distantzia soziala errespetatzen direla zaintzen dugu... Garraio publikoan bermatzen direla ziurtatzen dute arduradun politikoei adibidez? Negargarriak dira Bizkaiko zahar-etxeetako kutsatze-datuak. Bertako egoliarrek tabernaz-taberna ere badabil-tza? Osasun- eta hezkuntza-arloan behar den segurtasuna bermatu dezatela eta lan egiten utz gaitzate! Egia da guztiok izan behar dugula arduratsuak, baina, Eusko Jaurlaritza ez dela behar bezala egon esango nuke.

Merkataritza bueltatuta, pandemiak on-line erosketak handitu dituela diote hainbat ikerketek. Prest al dago Zorrotzako merkataritza on-line erosketak bultzatzeko?

Marta: Ez dago prest, baina argi dago on-line merkataritza geratzeko etorri dela. Beraz,

pixka bat pentsatu beharko dugu horretara nola egokitu, eta, gutxienez, gure sare sozialek bultzada bat behar dute.

Merkatalgune handien kontra lehiazeko moduan zaudete? Nola egin dakieke aurre multinazionalei eta marka erraldoiei?

Marta: Oso zaila da erosketa-bolumenean asko biderkatzen gaituzten marken aurka lehiaztea, baina garrantzitsua litzateke jendeak bere erosketa-ohiturak aldatzea, eta, gure aldetik, merkatalgune handi horietatik bereizten gaituena nabarmentzen jakin behar dugu; hau da, zuzeneko arreta, produktu zehatzagoa eskaintzeko hurbilagoko harremana, gure bezeroak ezagutzen baititugu.

Auzoko merkatutzari zelan laguntzen dio elkartuta egoteak? Eta merkatarari edo ostalariei, zer onurak ekartzen dizkie Laguntasunari elkartuta egoteak?

Marta: Saltoki guztien arteko batasuna funtsezkoa da aurrera egin ahal izateko, are gehiago gaur egungo pandemia egoera horrekin. Gaur egun, gerra nork bere aldetik egiteak porrota segurua dakarkigu. Era berean, elkarteak ezinbestekoa da jarduera, kanpaina eta indar gehiago antolatu ahal izateko eta auzoan erosketa eta kontsumo-ohiturak sortzen saiatzeko, bizilagunek hemendik irten beharrik izan gabe.

Elena: Egiten diren jarduera, kanpaina eta abar horiek guztiek merkataritzan eta kontsumoan eragiten dute azken finean, eta onurak dituzte gure negoziotetan. Gainera, elkarterik ezean bidera ezina izango litzateke bonuak, opariak eta erakundeek laguntzak kudeatzea.

LABURREAN

Gutxi gora-behera zenbat dendari eta ostalari zaudete elkartuta Laguntasunari?

Marta: 55 inguru, baina beste zenbake-ta bat egin behar da.

Diru-laguntzarik jasotzen duzue edo bazkide-kuotekin soilik egiten diezue aurre burutzen dituzuen ekintzen gastuei?

Marta: Bai, gure aurrekontuko zatirik garrantzitsuenak diru-laguntzen bidez jasotzen dugu, elkartekideen kuota oso txikia baita.

Zer nolako ekintzak burutzen ditu Laguntasuna elkarteak?

Elena: Urteko moda desfilea, Erregeen kabalgata eta Pagotxen edo kaleko merkataritza jardunaldiak antolatzen ditugu, martxoan zein irailean. Eta, gainera, Zorrotzako gizarte-bizitzako jarduera ludiko eta sozialetan laguntzen eta parte hartzen saiatzen gara. Taldeen koordinatzaileekin elkarlanean ari gara, baita Jai Batzordearekin, ...

Zer esango zenikete egun elkartean ez dauden merkatariei?

Marta: Batasunak egiten duela indarra, eta are gehiago aurre egin beharreko une gogor eta zail hauetan. Elkartuta eta elkarlanean, errazagoa da gauza gehiago burutzeko, ideiak gauzatzea, elkarrekin lan egitea merkataritza bultzatzeko, kanpainak...



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Irailak 18 ostirala

Bilbao Uda 2020 kultur programa.
Clown Zorrotza 2020

18:30 Azoka parkean.

Maite Guevara: "Qué buen día".

19:30 Azoka parkean.

Hortzmuga teatroa: "Jule".



Irailak 19 larunbata

Bilbao Uda 2020 kultur programa.
Clown Zorrotza 2020

18:30 Azoka parkean.

Sempre arriba: "C'est pas Possible".

19:30 Azoka parkean.

Malas compañías: "Prozak".

Azaroak 4 asteazkena

Liburu aurkezpena idazlearekin:

17:00 Lápices liburudendan.

José Ángel García López:

"Cuentos budistas".

* Laster ere (oraindik ez da zehaztu data)
Mikel Santiago ere izango da "El mentiroso"
" aurkezten.



Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (azaroa-abendua) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi azaroaren 6a baino lehen.

Mexikar barquita solidarioak



Osagaiak: Piper berdea, piper gorria, tipula, paparra, gazta, mexikar barquitak, piperbeltza.

Lehenik eta behin, tipula eta piperrak txikitu eta olio pixka batekin frijitu. Gero papar txikitua bota eta gainetik piperbeltza.

Behin dena nahastuta, barkitak bete eta gazta bota gainetik. Labean sartu 5 minutu 220 gradutan. Eta listo!

Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 1,20 euro. Pintxo solidarioa da hau.

Ateratako etekina euskal preso politikoen familien gastuak arintzeko erabiltzen da.

ASKABIDE HERRIKO TABERNA

Fray Juan 20 , 48013, Zorrotza

Telefonoa: **688 855 648**



Doinua:

Azken arnasa eman
nahi nuke

Birusa iritsi denetik hona

hura dugu jaun ta jabe

eguneroko martxan sartu da

bizitza askoren zutabe

hasiera zahar berri honek zer

ziurgabetasun bare

zer etorriko sumatu ezinda

aurrera eginaz halare

gauza txikiak goza ditzagun

bizipoza galdu gabe


Asier Urkiza



Nobela errealista bat

Joxean Agirre Odriozola.

Elkar. 2020. 200 orrialde.



Gudarien balentriak biltzen eta Loiuko aireportuan jasotako bezeroei kontaktzen dizkien taxizaleak, bat-batean, argitaletxe baten enkargua jasoko du liburua bat idazteko; izan ere, Agirrezabal idazle zarauzitarra –taxistaren emaztearen maitalea zena– istripu edo atentatu ilun batean hil berri da, El Lobo espioiaz idazten ari zen nobela erdibidean utzita, eta nor egokiago taxizalea baino, eleberrir errealista hori amaitzeko?

Bere betiko ezaugarriak –sentsualtasuna, metaliteratura, idazketaren dotorezia– dohain berriak erantsi dizkie Joxean Agirrek eleberrir honetan: hainbat harialdi be-

rean jorratzea, gure historia hurbileko istorio txundigarrienak aletzea, ironia dosi oparoak banatzea... Sasoi betean dagoela erakusten digu horrenbestez, eta bere narraziozintza koska bat estuago eraman.



Hilotz: "Aske"

(Maldito Records) 2020



Ikasturte berria indarrarekin hasteko Lasarteko Hilotz hirukoteak lan berria dakarkigu honakoan. Trash eta death metalaren korronte indartsu eta sakonetan murgiltzen dira eta hiru urteko prestaketaren emaitza da "Aske" bigarren diska.

Karrantza herriko Black Storm estudioetan grabatu, nahastu eta masterizatu dute Ekaitz Garmendia gitarjole eta ekoizle entzutetsuaren laguntzaz. Ingu-

ruak eskaintzen duen mantsotasuna klabea izan da prozesu hau burutzeko orduan eta soinuari dagokionez baliabide ezberdinak erabili dituzte emaitza indartsua lortzeko. Hau guztia laburbiltzeko estudioko irudiak eta bitxikeriak batzen dituen bideo sorta interesgarria plazaratu dute YouTube plataformaren bidez.

Izenburuaren esanahia ulertzeko taldeak bi galdera planteatu ditu: *Zer da askatasuna? Nork ematen digu, nork kentzen?* Hamaika kanta, hamaika begirada, zalantza eta desio, kateak hautsi nahi dituzten norbanakoen begietatik kontaktuta. Beraien esanetan "enpatia ariketa" bat egin dute, "aske izan nahi dutenen" larruazalean jartzeko ahalegina.

Ibai Barrios

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIAI!**

**★ independentzia!
SOZIALISMOA!**



ASKABIDE
kultur elkarte
ZORROTZA

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidalguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Aldapan gora egingo zaigun ez ohiko iraila heldu da

Nork imajinatuko zuen martxoan konfinatu gintuztenean, aurten ez gintuztela ez Marijaiak ez Txinbo Mikelek bisitatuko? Nik behintzat ez. Oraindik gogoan ditut berrogeialdiko lehen egunak: hamabost egun izango zirela uste nuen eta kitto, berriro errutinara. Baina ez zen horrela izan, eta di-da apirilean geunden etorkizun oso ilunarekin, eta jai batzordeak ez geunden salbuetsita.

Udako garaia hurbiltzen ari zen, eta jai batzordeak ez genekien nondik jotzen zigun haizeak. Horregatik, Auzotarrok Bilboko jai batzordeen koordinadoratik lanari ekin genion, ahalik eta informazio gehien izate-

ko eta zer etorkizun izango genuen jakiteko. Hasiera batean erraza izango zela uste genuen, baina udaletxera mezu elektroniko bat bidali eta haiek gure galderei erantzutea izango zela uste genuena, gaur egun amaitu ez den borroka erabat zentzugabea bihurtu zen. Izan ere, errealitatea da gure alkateak eta jaietako zinegotziak ez dutela jai batzordeekin bildu nahi. Txiste txarra dirudi, baina ez da hala: jaietako agintari nagusiek ez dute haien sortzaileekin bildu nahi.

Baina bizitzak aurrera jarraitzen du eta ez -jaiak zirenak hurbiltzen ari ziren, auzo batzuek ezer ez egitea erabaki zuten, beste batzuek online gauza sinbolikoak egitea... ideia guztiak ongi etorriak ziren.

Jairik gabeko uda igaro eta irailan gaude, oso hilabete garrantzitsua auzoan: gure jai maiteak egitea tokatuko litzazukeelako, Jai Batzordean gure egitarau potoloari azken ukituak ematen ariko ginatke, azken txandak lotzen ariko ginatke eta milaka eztabaida izango genituzke. Baina aurten ez da horrela izango, eta esan behar dut iraila aldapan gora egiten ari zaigula, badakigulako Txinbo Mikelek aurten ez gaituela bisitatu. Frontoia ez dugu auzoko taldeen milaka emanaldirekin beteko, parkea ez da babarrunez eta marmitakoz beteko, eta ez dugu Kresala zuzenean entzungo.

Baina ziurtzat jo egun hauek ezohikoak izango direla auzoan, eta Jai Batzordeak ospatzeko modua bilatuko du, sinboliko ki bada ere. Urte honek gogoetarako balio behar digu, 2021eko jaiak bestialak izan daitezen. Gora Zorrotza! Gora TxinboMike!

Nerea Zuloaga, Auzotarrok koordinadora eta Zorrotzako Jai Batzordeko kidea



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46

TXOKO FEMINISTA



Organizatuta dauden emakumeak beti status quo kontserbadorearen etsai kontsideratuak izan dira, eta hala gertatu da aurten 8Ma bezalako mugimenduekin:

Eskumako alderdi politiko eta sozialen partez, feminismoa eta COVID19 pandemia erlazionatzeko ahalegina egon da, nahiz eta esfortzu guztiek arrakastarik izan ez duten.

Mugimendu feministak, gero eta indartsuago eta populatsuago, gero eta mehatxu handiagoa suposatzen du gizartearen al-

derdi kontserbadoreentzat eta hauek kontra borrokatzeko estrategia berriak sortzen dituzte: kasu honetan, osasun publikoaren kontra jotzen duela esanez.

Alderdi politiko desberdinek feminismoaren alde daudela ikusarazi nahi izan duten arren, feminismoaren ideiak haien ideia eta printzipioetara egokitu nahi izan dituzte, kontrako bidea egin beharrean.

Baina kontuz! Emakumeak eta patriarkatuak zapaltzen dituen izateko modu guztiontzako askatasuna eta berdintasuna defendatzen ez baditu... hori ez da feminismoa.

SALAKETA ARGAZKIA



Usandizaga musikariaren kalean, espaloi higituaren abesti zaharra

Usandizaga musikariaren kaleko bizilagunak aspertuta daude espaloia aldatzeko eskatzeaz, egoera negargarrian baitago. Duela urte batzuk, egoeraren doinua aldatu egingo zela zirudien, barrutiko kontseiluan auzokideen proposamen hori jorratu baitzen. Hala ere, urteak aurrera doaz, eta kale honetako bizilagunak abesti bera jasateaz aspertuta daude oraindik.



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!*



Untziola kalea, 8
ZORROTZA

Itaka

Uda amaitu da eta beldurrak airean ibiliko da bat baino gehiago. Eta nola esan, ez da birusa beldur gehien ematen duena.

Hondartzan ez da txintik entzuten. Euriak bainulariak uxatu ditu. Hodeiak mehatxagarri ageri dira han-hemenka ostartzet zipriztindutako zeru grisaxkan. Argia somatzen da uraren lerroak xedatzen duen finisterrae hurbilean. Airea dabil, fin-fina. Itsaslabarren arrokek ezarian iristen diren eguzki izpiak gordetzen dituzte beren baitan. Denak hartu du kolore itzali bat, norbaitek nonbait mundua Polaroid zahar batekin izoztu izan balu bezala. Baina ez. Paisaiak izen abizenak ditu eta zuk hotzak erreta sentitzen dituzu masailak.

Uda amaierako giroaren baitan umezurtz sentitu zara. Ustekabean, amildegiaren ertzean abando-

natu duten jaió berria zara. Uste sendoen garaia baita iraila, eta aurten, usteak erdi ustel, txo. Hondar hilabeteetan zenbat aldiz ez ote duzun zure burua galdekatu. Zenbat aldiz zalantzak ez ote dion ziurtasunari gain hartu. Ez omen da ezer gertatzen eta dena gertatzen da. Barkuak oholak eta aingurak prest eduki ditzake, alferrik da ordea norabide zehatzik ez badago.

Uda amaitu da eta beldurrak airean ibiliko da bat baino gehiago. Eta nola esan, ez da birusa beldur gehien ematen duena. Beldurra da icebergaren kontra jotzera doan itsasontzian joatea, norabidea zuzentzeko asmoz lemara hurreratu eta lemazainik ez ezik, lemarik ere ez dagoela ikustea. Beldurra itsaso zabal, gupidagabeari, mareak ekarriko duenari. Eta hala ere, korronteen menpe zaudela jakin arren, bideaz gozatu nahi zenuke. Eta zergatik ez, Ulises izan. Begibakarrak itsutuz, irla abandonatueta lehorreratuz, kostalde ezezagunak miatuz. Sirena kantuei ahal bezala iskin eginez. Itaka tarte batez ahaztuz, akaso.

Asier Urkiza

Gorbeirako gau ibilaldie 2020

Aurten, eta azpaldiko partez, hilargi betearen laguntza osoa izan dogu. Aurretik bidea markatu genduz arazo barik eta bide zuzenetik heldu ginan (beno, egie izateko baten bat beti galdu behar da eta beraien edo basurden bideak hartzen dauz eta gero gerokoak...)

Auzotik atera ginen ordu onean eta gorantz egin gendun eguneko azken argiekaz, Serantes ikusten zan zoragarri. Pagasarrirantzako bidea hartuta Arraitzera heldu ginan eta gora jarraituz Artabe bidea hartu gendun.

Pastorekortaren maldetatik Ugaora heldu ginan, hilagi bete bete lagun, eta hantxe beste kide bat batu zan taldera (urtetzeko ordukeaz okertu zan eta Ugaora joan zan gure bile).

Ugaotik Mandoiarantza abiatu ginan eta bere maldetatik Zeberioanara jaitsi ginan, andra mari baselizara eta errepidea hartute, ermi-

tabarrire jaitsi ginan. Bertako pilotalekuen mokautxu bet jan gendun, giroan zegoen freskurari aurre eginez, ondino gau.

Barriro aurrera Gezalerantza eta aurten izan dogun eguraldiagatik, Bikozganara joan beharrean (bedarrak eta sastrakak bururartino egongo ziran eta bideak itxiak...) Lauretara jo gendun eta handik Gorbeirako Upo iturrira joan ginan, jada egusentien.

Upo iturritik Pagomakurrerko pista hartute, gorantz jarraitu gendun... eta behin Pagomakurren egonda, pizka bat jan eta Gorbeirako ganarantz, lortu arte!! Eta handik, Pagomakurrerri jaitsi eta lagun bat etorri zanez geure bila, ospatzeko bazkaltzera joan ginan. Hurrengorarte!!

*Manu Cobo,
Zorrotzako Mendizaleak*

Kurtso berria hasita dago jada Auzoka Zentro Komunitarioan

Beharrezkoak diren arau eta neurriak ezarriak: gela bakoitzeko edukiera berriak, maskara, gel hiro-alkoholikoaren erabilera, gelen aireztapena eta bertara sartzen diren pertsona ororen erregistroa

Kurtso berria hasita dago jada Auzoka Zentro Komunitarioan. Pasa den irailaren 7an ireki zituzten ateak, beharrezkoak diren arau eta neurriak ezarriak. Gela bakoitzeko edukiera berriak, maskara, gel hiro-alkoholikoaren erabilera, gelen aireztapena eta bertara sartzen diren pertsona ororen erregistroa izaten ari dira bertan hartu dituzten neurrietako batzuk.

Irail lasaia espero dute; momentuz, batzarrak eta musika taldeen entseguak izaten ari dira gela erreserba nagusiak, urrirako beste elkarte eta taldeek haien ekintzei hasiera ematen dieten bitartean.

Egun hauetan, eta Ongi Etorri Errefuxiatuak-ekin bat eginez, Auzokan bertan, higienarako beharrezkoak diren xaboiak, hortz eskuilak, pastak, desodoranteak, maskarak eta barruko arropen bilketa antolatuta dago



bertan.

Besterik gabe, Auzoka sare sozialetan jarraitzera gonbidatu nahi zaituztegu; bertan gertatzen diren guztien berri izateko.

Besarkada bat!

auzoka
KOMUNITATE ZENTROA
CENTRO COMUNITARIO



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalvidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75



VIA grafica

viagraficzorrotza@gmail.com

Disenya



Inma

Txinbo xaboiarekin. Lantegia hemen egon zelako eta xaboia oraindik salgai dagoelako.



Eduardo

Tximinia bat Oso iluna eta grisa izan zelako lantegien garaian. Eta oraindik ere badirelako hainbat lantegi.



Zorrotzako ikurra:

Zorrotza ikono batekin irudikatu beharko bazenu, zein izango litzateke ikur hori

Narrea Peña eta Iratxe Pérez



Iratxe

More kolorea. Txikitari Zorrotza futbol taldeko partiduak ikustera joaten nintzen, eta niretzat haien kolorea da auzoaren sinbolorik nabarmenena.



Mariví

Kutsadura da burura etortzen zaidan lehenengoa. Baina Zazpilanda eta jaiaik ere aipatuko nituzke.



Anartz

Zerbait aipatu behar badut, Txinbo txoria esango nuke. Zorrotzako jaien maskota eta irudia bihurtu delako.



Afariak ostirala eta larunbatetan
Etxeko berezitasuna: katxopoa.
Telefona: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA



ESKAINTZA PROGRESIBOETAN
ARMAZOIA + KRISTALAK GOI-GAMAKOAK
265€
Sustapena indarrean +-4,00 esferako eta -2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18
ibarretaluxury
OPTICA

cafetxinbo
Especialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak

Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



EDICIÓN XXII. EDIZIOA

15-25 // 10 // 2020

BILBOKO ANTZERKI ETA DANTZA GARAIKIDEAREN JAIALDIA
FESTIVAL DE TEATRO Y DANZA CONTEMPORÁNEA DE BILBAO
BILBAO FESTIVAL OF CONTEMPORARY THEATRE AND DANCE

www.badbilbao.eus



B
Bilbao

IRAILAK 22-27 SEPTIEMBRE

B

Bilbao



WWW.BILBAOKULTURA.EUS

Bilboko Udalak antolatzen du
Organiza el Ayuntamiento de Bilbao
94 420 48 70 • cultura@bilbao.eus



2020

inaem

Bizkaia
DIPUTAZIÓI
diputación local

EUSKO PARLAMENTUA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA